

IKASGAIAREN IZENA: MUSIKA HIZKUNTZA ETA PRAKTIKA (1. Batxilergoa)

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: MUSIKA
ZERTARAKO	Musika-hizkuntzaren oinarrizko elementu eta parametroetan sakontzea. Norberaren sentimentu, emozio eta bizipenez gozatzea bakarka nahiz taldeko interpretazioetan, bai kantuekin, eta baita musika-tresnekin ere.
ZER IKASIKO DUZU	Musika hizkuntza eta praktika ikasgai DBHn ikasitako oinarrizko kontzeptuak berrikusi eta sakondu dira norberaren sormen eta interpretazio lanetan behar bezala erabiltzeko. Ikasturtean zehar, besteak beste, musikaren alorrean teknologia berriak landuko dira eta horretarako zenbait informatika-baliabide eta ikus-entzunezko bitarteko erabiliko dira musika ekoizteko, inprobisatzeko, musika entzuteko, ikus-entzunezko muntaketak egiteko, eta soinuak manipulatzeko.. Ikasgai honetan ere musika-tresna berriak ezagutuko ditugu eta gitarra eta harmonika ikasten hasiko baikara.
METODOLOGIA	Taldeko nahiz bakarkako lanen bitartez musika mintzairaren kontzeptu orokorrak landuko ditugu modu teoriko eta praktikoan. Kontzeptu horiek barneratzeko musika entzun edota interpretatuko dugu, interpretazio horretarako kantua eta musika-tresnak erabiliz.
EBALUAZIOA	Ebaluaziorako ikasgelan lantzen denaren eguneroko behaketa hartuko da kontutan; bai kantua eta musika-tresnen interpretazioari dagokionez, eta baita ikasleek, bakarka nahiz taldean, egindako lan eta proiektuen aurkezpenei buruzkoa ere. Ebaluazioko nota orokorra atal praktiko eta terikoen artean egindako batzbestekoaren bitartez lortuko da.
OHARRAK	Harmonika behar da (Institutoan jasoko da).

